

Guk eramango zaitugu

Train & BUS

Gure lurraldea
ezagutzeko modurik
jasangarriena

16 ibilbide ezberdin



Turismo jasangarriago eta
arduratsuagoaren
alde

GARAPEN
IRAILKOTERAKO
HELBURUAK



BILBAO BIZKAIA

Train & BUS



Txartel honekin dirua aurreztuko duzu eta errazagoa izango da Bilbao Bizkaiko egonaldia planifikatzea, bai, garraio publikoan, bai museoetarako, ikuskizunetarako eta abarrerako sarreretan, dendetan eta aisialdiko bestelako espazioetan. Eskatu Bilbao Turismoko bulegoetan edo webgune honetan:

www.bilbaobizkaiaicard.com

2024ko Uztaila / Laugarren edizioa

Argitaratzailea: Bilbao Bizkaia be Basque

Argazkiak, turismoko esku-orrien bilduma: Beste egile batzuk

D.L.: BI-662-2019

IBILBIDEAK TRENEAN

8

10 1. ibilbidea. Itsasadarraren alde biak
Batzen gaituen zubia

12 2. ibilbidea. Olatuen bila
Burdinazko erraldoiak eta surfeko taulak

14 3. ibilbidea. Trenbideak
Mineralak gure nortasuna forjatu zuenean

16 4. ibilbidea. Gernika eta Urdaibai
Bakea eta itsasoarekin armonia nahi duten bizilagunak

18 5. ibilbidea. Durango
Naturaren ikuskizuna

20 6. ibilbidea. Bilbao-Urduña
Nerbioiren jaioterria

22 7. ibilbidea. Kadaguako ibilbidea
Pasio bizia, putxerak eta txapelak



IBILBIDEAK AUTOBUSEAN

24

26 1. ibilbidea: Uribe
Landa inguruaren kostaldeko xarma

28 2. ibilbidea: Urdaibai
Arbasoen artea eta baso biziak

30 3. ibilbidea: Arteaga/Bird Center/Laida-Laga
Natura askea

32 4. ibilbidea: Elantxobe
Labarrean eskegitako herria

34 5. ibilbidea: Lea-Artibai
Kostaldearen eta tradizioaren edertasuna

36 6. ibilbidea: Markina/Ondarroa
Erromesen bidea

38 7. ibilbidea: Durangaldea
Harriek diotena

40 8. ibilbidea: Zeanuri/Otxandio/Ubide
Urkiola eta Gorbeia artean

42 9. ibilbidea: Nerbioi
Belusezko pagadiak eta kobazulo magikoak



MAHAIAN ESERITA EDO 44 PINTXOAK JATEN

Aholku gastronomikoak zuk nahi duzun moduan



46 INFORMAZIO PRAKTIKOA

Helbideak, telefono zenbakiak, estekak... Jakin ezazu den-dena

Bizkaia eta Bizkaiko txokoak, jendea eta gastronomia ezagutuko dituzu. Euskadi barnean lursailen espazio txiki bat jazotzen duen unibertsoa ezagutuko duzu; kontrastez beteriko herrialdea, nortasun propio eta antzinakoa duena, bere herritar abegitsuei izaera ematen diena, ondo jatea eta hori partekatzea gustuko dutenak hain zuzen ere.

Treanean egiteko zazpi ibilbide eta autobusean egiteko beste bederatzi ibilbide proposatzen dizkizugu "guk zu eramatea" nahi baduzu. Jasoko dituzun aholkuak disfrutatzeko modu ona da, gero ezagun guztiei bizitakoa kontatzeko gogoia izango baituzu.

Ongi etorri.

TRENEAN



- 1. ibilbidea. Itsasadarren alde biak
- 2. ibilbidea. Olatuen bila
- 3. ibilbidea. Trenbideak
- 4. ibilbidea. Gernika eta Urdaibai
- 5. ibilbidea. Durango
- 6. ibilbidea. Bilbao-Urduña
- 7. ibilbidea. Kadaguako ibilbidea



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

AUTOBUSEAN



- 1. ibilbidea: Uribe
- 2. ibilbidea: Urdaibai
- 3. ibilbidea: Arteaga/Bird Center/Laida-Laga
- 4. ibilbidea: Elantxobe
- 5. ibilbidea: Lea-Artibai
- 6. ibilbidea: Markina/Ondarroa
- 7. ibilbidea: Durangaldea
- 8. ibilbidea: Zeanuri/Otxandio/Ubide
- 9. ibilbidea: Nerbioi



Txartel bakarra BIDAIATZEKO, BISITATZEKO ETA EROSKETAK EGITEKO abantailaz beteta



A
GOOD
IDEA

Hiriko eta hiri arteko garraioan abantailak, baita hainbat saltokietan erosteko abantailak ere. Baina txartel hau gainera sarre-
rak erosteko zure pasaportea izango da, baita museoetara edo erakusketetara joateko ere, eta hori gutxi balitz zenbait jarduera turistikotan parte hartu ahal izango duzu askotan ilaran egotea ekidinez. Eta noski, zenbait jatetxeetan ere abantailak izango dituzu.



BILBAO
BIZKAIA

Horregatik Bilboko eta Bizkaiko erakundeek bisitari guztiei mugitzeko erraztasunak eman nahi dizkiegu, eta horretarako, **abantailak eskaintzen ditugu hiriko eta hiri arteko garraioan Bilbao Bizkaia Card txartelarekin.**

Bilboko turismo bulegoetan eskuratu behar duzu, edo bidaiaren aurretik ere erreserbatu dezakezu.

www.bilbaobizkaia.com/reservas/

Bilbao Bizkaia Card erabiltzea modu onena da Bilbotik eta Bizkaitik mugitzeko eta erakargarri turistikotik ezagutzeko. Txartel hori erabiliz aurreztu egingo duzu eta garraio publikoa mugarik gabe erabili ahal izango duzu. Gainera, gure bazkide-



tuen eskaintzei esker promozio eksklusiboak izango dituzu.

Pasaporte interesgarria da gainera **erosketak egiteko**, deskontu eta eskaintza bereziak dituelako.

Txartel honi esker **deskontuak izango dituzu museoetan, bisita gidatuetan, jatetxeetan, saltokietan eta jarduera turistikotetan**, eta Bilboko Guggenheim Museora edo Arte Ederren Museora sartzeko ila-
rarik ez duzu egin beharko.

Lortu txartel bat eta bizi esperientziarik onena.



Garraio publiko doakoa

Gaur egun sekula baino errazagoa da Bilbon eta Bizkaian zehar mugitzea. Bilbao Bizkaia Card garraio sareetan aktibatu ondoren doan bidaia-tu ahal izango duzu 24, 48 edo 72 orduz, erosten duzun txartelaren arabera.



Bilbao Bizkaia Card txartelarekin garraiobide hauek erabili daitezke: Lurraldeko baliabide turistikotik guztiak eskuragarri izango dituzu:

TRENAK: Metroa, tranbia eta Euskotren, Bizkaian zehar

AUTOBUSAK: Hiri artekoak (Bizkaibus), Bilbao barnekoak (Bilbobus)

KABLEA: Artxandako funikularra, Larreineto funikularra.

IBILBIDEAK TRENEAN

Bizkaia Trenean

Erromantikoa da paisaia pasatzen ikustea trenaren soinuaren erritmoan. Horixe da gure proposamena, baina gainera, Bizkaiko trenbide sareari esker gutxienez interes turistikoa handiena duten lekuak bisitatu ahal izango dituzu.

Metroa Bilbotik, aldiriko trenak Atxuri eta Abandotik edo Conradiako geltoki modernistatik, zazpi ibilbideetan zehar konbinazio guztiak egin ahal izango dituzu guzti-guztia bisitatu ahal izateko.



1. ibilbidea. Itsasadarraren alde biak Batzen gaituen zubia

Bizkaia Zubiak Nerbioik bere urarekin Bilbao Handiari egiten dion zauria ixten du. Burdinazko egitura handiak Bizkaiko historian metal horrek izan duen eta oraindik duen garrantzia agerian uzten du eta zubiak itsasadarraren bi aldeak batzen ditu, bi munduak, osotasunari zentzua ematen diolarik itsasoratu aurretik.

Ibilbidea Bilboko **Abando** geltokian hasten da, Renfeko C1 linean, **Santurtziko norabidean**. 22 minutuan herri arrantzalera iritsiko gara. Trenetik atera eta metro gutxira portua dago, eta han arrainaren lonja bisitatu ahal izango dugu, baita Santurtziko Itsas Museoa edo enkantea ere, noizean behin enkante antzeztuak egiten dituztelarik. Baina ziurrenik Santurtzi sardina erreengatik ezagutuko duzue, baita "Desde Santurce a Bilbao" kanta ezaguna dela eta ere: "sardina freskue...".



Santurtzi

Hurrengo herria **Portugalete** da, paseatzen joan gaitzek bertara. 10 minutuan **Agurtza itsasontzia** ikusiko dugu, egurrezko azken ontzietako bat, arrantza tradizionalakoa, urte guztian zehar bisitatu daitekeena.

Portugaleten Erdi Aroko herrigunea bisitatzea aholkatzen dizugu **Bilboko Itsasadarraren ondoan** (Santa Maria basilika, Salazar dorrea eta Solar



Portugalete

enparantza), baita "**Bizkaia Zubiak**" edo "Eskegitako Zubiak" ere. Munduko lehenengo zubi transbordadorea da, ingeniariaritzaren industrialeko altxorra, 1893an inauguratu zutena eta 2006an Gizateriaren Ondare aintzatsi zutena.

Bi alde batzen ditu, bi mundu, bata langileena, Ezkerraldea, eta bestea burgesiarena, Eskuinaldea. Itsasadarratik nabigatu ahal izatea ez du oztopatzen burdinazko egitura erraldoiak. Zubiak Bizkaiko historiaren zati nabarmena da, eta zubia gurutzatuz iritsiko zarete **Getxora**. Kaxan edo goiko pasabidean igarotzeko aukera izango duzue, eta goitik Abraren bista zoragarriak ikusiko dituzue.



Getxo

Lehorreratu ondoren **Areetako kaian** (Getxon) egongo zarete, leku ezin hobea XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako jauregi arkitektura ezagutzeko, garai hartan gizarte eta ekonomia gorakada nabarmena izan baitzen Bizkaiko eremu honetan. Arkitekto ospetsuek kostaldeko paisaia ikusgarria sortu zuten eraikuntza paregabeekin, besteak beste Bidearte, Cisco etxea, Kai-Alde jauregia, Cristina Etxea edo Mesedeetako Andre Mariaren eliza eta Txurrukako kaia.

Bizkaia Zubiak



Oinez jarraituz kirol portura iritsiko zarete, kirol nabigaziorako eta denbora gutxi egoten diren ontzientzako prestatua. Eremu ludikoa eta merkataritzakoa ditu, baita beste eremu tekniko bat ere uretako kirolentzako. Kirol portuaren ondoan itsas bidaletako itsasontzien terminala eta **Ereagako hondartza daude**.

Begirada altxatu eta aberatsen egoitzak ikusiko dituzue itsasoaren

gainetik **Algortako portu zaharra-
ren inguruan**, eta hara iristeko hondartzako paseoa oinez egin behar da. Igo eskailerak eta ikusi maite-minduko zaituzteten arrantzaleen etxeak, irregularrak eta koloretsuak, arrantzaleen auzoko kale estuetan oinez zabiltzaten bitartean.

Bilbora metroan itzultzeko aukera izango duzue Algortako edo Neguriko geltokietatik.



2. ibilbidea. Olatuen bila

Burdinazko erraldoiak eta surfeko taulak

Burdinazko erraldoiak agerian uzten du XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran Bizkaian bizitako susperraldi ekonomiko eta soziala, eta zubia da protagonista nagusia. Kostaldeko alde horretan eraikuntza eta pasealeku handiak egin zituzten, eta hondartza inguruetak eraikinek agerian uzten zuten bertakoen maila ekonomikoa. Hondartza lasai horiek edo olatuak eta surfeko taulak nagusitzen diren hondartzak deskubritu itzazue, baita munduko lehenengo ur azpiko bodega eta arrezife artifiziala ere.

Ibilbidea Bilboko edozein geltokietan hasten da, metroko 1 linea hartuz **Plentziarako norabidean**, eta lehenengo gairekua Areeta izango da. Ongi-etorria emango dizue **Bizkaia Zubiak**, burdinazko egitura ikaragarriak, Iraultza Industrialaren ikur eza-gunak, UNESCOk gizateriaren ondare aintzatetsi zuenak. Zubia eraiki zuten Nerbioiko ibai ahoaren alde biak komunikatzeko beharra zutelako, eta burdina ustiatzearen ondorioz Bizkaiko ekonomiak eta gizarteak izan zuen susperraldi garaia agerian uzten du zubiak. Beste aldera beheko kaxan edo zubiaren goiko pasabidean joan zaitezke.

Areetako kaia ikusi ondoren paseo bat emanaz kirol portura iritsiko zarete. Euskadin eraikitako lehenengoa izan zen, eta kirol nabigaziorako eta uretako kirolak egiteko sortu zuten. Gainera, merkataritza saltokiak, eraberritze dendak, ostalaritzakoak, zinemak eta aquariuma ere badaude.

Ereagako hondartzatik jarraituz **Algortako** portu zaharrera iritsiko zarete. Arrantzaleen auzo xarmangarria da, eta eskailerak igo eta kaleak bisitatzean San Nikolas ermita, arrantzalearen eta sardina saltzailaren eskulturak, Etzetxu plaza, Riberamune petrila eta Getxoko sirenoaren malekoia ikusiko dituzue, itsasoarekin harreman zuzenean dagoen artelana.

Metroa Algortan hartu eta Bidezabalen jaitsi, eta bi kilometro inguru oinez egin ondoren **La Galea** iritsiko zarete, **Getxoren** goiko aldera, eta bertan Abra ibaiaren bista ederrak ikusiko dituzue. Bisitatzeko leku ederrak daude bertan: Aixerrota izeneko errota, La Galeako gotorlekua eta itsasargia, Andra Mari eliza eta Karmengo Amaren hilerria.




Arriatera-Atxabiribil


Metroan **Sopelara** joateko aukera dago ondoren, leku ezin hobea surfean eta bodyboard-ean aritzeko. Hondartzetan haitzak daude forma ederrekin eta amildegi handiak baita ere.



Plentzia



Barinatxe-La Salvaje hondartzan duna bereziak daude, eta bertan parapente zaleak egoten dira kirola egiten. Arriatera-Atxabiribil hondartzatik gertu hainbat taberna daude giro ederrekin, eta horietatik ilunabar ederra ikusteko aukera izango duzue.



Hurrengo helmuga **Plentzia** da. Herri horretan ibaia, familian egun bat pasatzeko hondartza perfektua eta herrigune historikoa daude. Badian esperientzia paregabea bizi daiteke, munduko lehenengo urpeko ardo bodega eta arrezifea bisitatu daitezke, Crusoe Treasure urpeko bodega hain zuzen ere. Jaso informazioa Plentziako turismo bulegoan. Bilbora bueltatzeko metroko 1. linea hartu behar da berriz ere.

Areeta

3. ibilbidea. Trenbideak

Mineralak gure nortasuna forjatu zuenean

Naturak berriz ere egun batean meatzaritzak kendu zion lekua hartu du. Natura lanean ari da eta ilargia dirudien espazioa sortzen ari da. Bertan imajinatu ditzakegu laku sakonak, mendixka txikiak eta paseo atseginak meatzari herrixketan zehar. Herri horietan arretaz entzuten baldin badugu oraindik ere makina erazleen soinu erritmikoak entzun ditzakegu, baita meatzari nekatuen arnasestuak ere.

Ibilbide honetan ikusiko duzue zein garrantzitsua izan zen meatzaritza industria Bizkaian (eta bizkaitarren nortasuna eraikitzean), eta nola gauzaten zuten burdinaren erauzketa XIX. eta XX. mendeetan. **Trapagara** iristeko Renfeko C2 linea hartu behar da Bilboko Abando geltokian Muskizera noranzkoan. Ordu laurdenean iritsiko zarete, eta Trapaga bi eremutan banatuta dagoela ikusiko duzue. Aiestaran baserria, Olaso jau-regia eta hainbat eraikin erlijioso bisitatzeko aukera izango duzue.

Goiko aldera iristeko Euskotrenen **Larreineta funikularra** hartu behar da, 2014an Kultura Intereseko Ondasuna izendatu zutena. Funikular hau ez da Espainiako eta Europako gainerrako funikularrak bezalakoa, bakarria baita kabinak modu horizontalean kokatuta dituelako.



Larreineta



Goian zaudetela **Larreineta herrian** Nerbioren Abra ibaia ikusiko duzue Serantes menditik (ezkerrean Santurtzi dago) Punta Galearaino (Getxo), itsasoaren gaineko amildegiekin. Barriinuevon nabarmentzekoa da 1898an eraikitako garbategia; bertan batzen ziren tokiko emakumeak.


Zugastieta antzinako meatzari herrian paisaia berezia dago. Bertan naturak zenbait laku sortu ditu (laku beltza eta Ostion lakua) antzina meatzaritza ustiapenak izan ziren putzuetan, burdin erauzketak kanpoaldean egiten baitziren. Trianoko mendien ingurua oso egokia da familiar paseatzeko, besteak beste Peñas Negras ingurumen interpretazio zentrorra eramaten duena.

"Babarrun janak" tipikoak dira, eta denboran geldituta dauden jatetxe atseginetan babarrunak jateko aukera izango duzue.



Gallartako meatzaritza museo

Trapagara itzultzean tren linea berekin **Gallartara** iritsiko zarete, eta hor ezinbestean bisitatu beharreko Gallartako Meatzaritza Museoa dago. Museoaren helburu nagusia meatzaritzaren ondare industrial babestea eta ondarearen berri ematea da. Gainera, Euskadi osoko kanpoaldeko altitude gutxieneko puntu geografikoa bertan dago (20 metro itsasoaren maila azpitik).



Zugastieta

4. ibilbidea. Gernika eta Urdaibai

Bakea eta itsasoarekin armonia nahi duten bizilagunak

Piperrak, babarrunak, marmitakoa, arrain kontserbak, atuna, hegaluzea eta antxoak, Bizkaiko ekialdearen izaerarekin sortu eta egindako produktuak, non iragan historikoa oso nabarmena den, bizilagunen bake nahiak bonben oihartzuna isiltzen duelarik. Naufragioen eta itsasoko ekaitz bortitzen istorioek itsas jendearen izaera, ohiturak eta pasioak isilik izatea egin zuten.

Ibilbide hau egiteko Euskotrenen Bilbao-Bermeo tren hartu behar da Bilboko Zazpikaleak geltokian **Bermeorako** noranzkoan. 50 minutu ondoren **Gernika-Lumora** iritsiko zarete. Udalerrri hori bisitatzea ezinbestekoa da Bizkaiko historia eta ohiturak ezagutzeko. Piper eta babarrun ospetsuak bertakoak dira, eta foru hiribildu honetan urteko astelehen guztietan merkaturak antolatzen dute. "Gernikako Azken Astelehena" nekazaritza azoka ospetsua egiten dute baita ere urriko azken astelehenean.



Gernika-Lumo

Gernika mundu osoan zehar ezaguna da gudaren zentzugabekeria eta bortizkeria dela-eta. 1937an bonbardatu zuten, Espainiako Gerra Zibilean, eta Picassoren margolanari esker bake nahia irudikatzen duen herria da gaur egun. Gainera, Batzar Etxean Gernikako arbola ospetsua dago, euskaldunen eskubide eta askatasunen estandartea hain zuzen ere.

Europako herrien parkea, Bakearen museoa, Euskal Herriaren museoa eta Pasealekuko babesleku antiaereoak ere bisitatu daitezke. Gure historia ezagutzea da, gure nortasuna, eta tradizioak errotuena.

Itsasbegi-Busturia geltokian jaitsi ondoren hondartzara joan zaitezke, **Sukarrietara**, oso gomendagarria familientzat. Hondartza irekia da, Sandindere irlak babesten duena Gernikako itsasadarren ezkerreko aldean, **Urdaibai** Biosferaren Erreserba barnean. Hondar fina eta itsaso barea ditu, aisialdirako eremua dago, baita ermita txiki bat eta itsas pasealekua ere.

Mundaka helmuga ospetsua da nazioarteko surfean, Europako ezkerreko olatu luzeena bertan baitago. Mundakako bizitza arrantzaleen portu inguruan kokatzen da, baina Santa Katalina ermitatik Bizkaiko kostaldearen bistarik ederrenetakoa ikusi ahal izango duzue.



Mundaka

Bermeon marmitakoa, eta atun, hegaluze eta antxoa kontserbak jan ahal izango dituzue. Bermeo herri arrantzalea da, xarma handikoa eta balea arrantza tradizio handia duena. Arrantzaleen museoa bisitatu ondoren bizitza itsasoan eman zutenen bizitza motari eta zailtasunei buruzko ezagutza gehiago izango dituzue.



Bermeo



Gernikako Batzar Etxea

Idea ona da pintxoak jatea eta Bermeoko portu zaharra bisitatzea. Dudarik gabe, beste ideia interesgarria Gaztelugatxeko Doniene bisitatzea da. Uhartetxo horren goiko aldean ermita bat dago, tradizio handikoa itsasoko biztanleen artean eta Euskadin gehien bisitatzen den lekuetako bat, paisaia oso aberatsa duelako, itsaso zabala eta kostaldeko amildegiak batuz.

5. ibilbidea. Durango

Naturaren ikuskizuna

Mendi altuen isiltasuna nagusi da Durangon. Urkiolako parke naturala eta Anboto mendia, kareharri zuriko haitz handiak, pagadiak, amildegiak, haranak, basoak eta zelaiak...Inguru natural zoragarria da historiaz betetako kaleak eta esfortzu handiz landutako harrizko jauregi ederrak bisitatzeko.

Bilbao
Zazpikaleak
(Metroko 3. linea)

BI-SS
euskotren



Durango

Durango iristeko Bilboko erdigunean kokatutako **Zazpikaleak** metro geltokian EUSKOTREN Bilbao-Donostia linea hartu behar da eta 36 minutuko bidaia egin behar da.

Durango erdigunean elementu eta eraikin enblematikoak daude, besteak beste **Kurutziaga gurutzea** dagoen Kurutzesantu museoa. Bertan dago baita ere Durango turismo bulegoa. Horrez gain, Uribarriko Santa Maria basilika, Santa Ana eliza eta bere arkua, Tabirako San Pedron eliza, Lariz dorrea (esaten dutenaren arabera bertan lo egin zuen Isabel Katolikoak Durangon egon zenean bere foruei eta Durango Merinaldearen foruei zin egiteko) eta



Urkiola

hainbat jauntxoaren jauregiak bisitatu ahal izango dituzue, oso ondo landutako harlanduz eraikitakoak.

Bitxikeria gisa, Mikeldi kalean "Mikeldi idoloaren" kopia ikusi ahal izango duzue, Burdin Aroko eskultura bat, Durangon aurkitu zutena. Jatorrizkoa Bilboko Euskal Museoan dago. Euskal Herrian pieza bakarra da, eta modu eskematikoan irudikatzen du animalia bat, zeinaren oinetan eta sabel azpian disko bat dagoen.

Durango kaleetan zehar galdu eta 1937ko bonbardaketan, Espainiako Gerra Zibilean, erabilitako metrailen aztarnak eta zuloak ikusi ahal izango dituzue etxeetan, eta bonbardaketaren unean merkatura eta mezara joaten ari zirenek bizitakoa imajinatu ahal izango duzue. Ibilbide honetako geldialdi interesgarrienak Kurutziaga kalea, Santa Maria basilika, Ezkurdi plaza, Sanagustinalde ingurua (bertan daude Durango Arte eta Historia museoak eta San Agustin antzokia), Bruno Mauricio Zabala kalea eta bukatzeko "Gogoratzeko espazioa", gertakari tamalgarria oroitzeko sortutako monumentua dira.



Durango Azoka,
Euskal liburu eta disko azoka

Gorantz begiratzean bista paregabeak ikusiko dituzue, Durango inguru natural zoragarrian kokatuta baitago, mendizerra eta kareharri zurizko haitz handiekin, amildegiekin eta haran sakonekin, baso bihurri eta zelai leunekin, guztiak ere **Urkiolako parke naturalekoak**... Inguru ederra da mendian ibiltzeko, eskalatzeko edo rappela egiteko, beste batzuen artean. Informazio guztia Durango turismo bulegoan jaso ahal izango duzue.



Durango kultura agenda ere anitza da, eta horretan nabarmentzekoena Durango Azoka da, euskal liburu eta disko azoka (abenduan antolatzen dute eta Euskadiko kultura azokarik garrantzitsuenak da), baita ere Ardo Saltsan azoka (ardoaren eta delicatessen elikagaien azoka), Pasioa eta Aste Santuko prozesioak eta *auto klasiko*en rallye-a, besteak beste.

Durango

6. ibilbidea. Bilbao-Urduña Nerbioiren jaioterria

Bizkaia eta Araba leku zoragarri batean batzen dira, espazio geografiko ezin hobearen, Aiarako eskualdean, eta bertan nabari dira XVI. eta XVII. mendeetan inguru horrek izan zuen nagusitasun ekonomikoaren zantzuak, kokapen pribilegiatua baitzen merkataritzari eta aduanei dagokionez, Gaztelarekiko hurbiltasuna dela-eta.

Abandoko C3 linea hartzean, Bilbao-Bizkaiaaren turismo bulegoaren ondoan, paisaia hirikoa eta industrialak ikusi daitezke, Nerbioi ibaiaren inguruan, eta ordu erdian lur berdeak agertzen dira, zelai inguruak, **eta hala iritsiko gara Urduñara.**

Trena Aiarako bi udalerrri handietatik igarotzen da, Laudiotik eta Amurriotik (Amurrioko geltokiaren ondoan "Destilerías Manuel Acha" likoreen museoa dago), eta 45 minutuan Urduñako haranean egongo zarete.



Urduñan jaistean Txarlazo mendia ikusten da. Mendian ibiltzea maite dutenentzat aukera ona da, geltokitik 10 minutura hasten baita mendi tontorrera igotzeko ibilbidea. 6 km inguruko ibilbidea Euskadiko "Birding" ibilbidea da, eta bertan basoa, flora eta aldi zehatzetan haran horretako paisaia osatzen duten hegazti harkaiztarrak ikusi daitezke.



Jaistean XX. mende hasierako eraikuntza interesgarriak daude, eta hala, "Bizkaiko Erdi Aroko" herrigune historikora iritsiko zarete, udalerriko turismo bulegoa dagoen lekura.

Foruen plazak osatzen du erdigunea, eta bere inguruan 11 kale estu dauka. Kale horietan zehar monumentu ondare aberatsa dago, eta bertan nabarmentzekoak dira Santa Mariako eliza-gotorlekua, jauregiak eta La Aduana eraikin ikusgarria.

Turismo bulegoak urte osoan zehar Erdi Aroko gunea bisitatzeko bisita gidatuak eskaintzen ditu.

Kale estuetatik iraganez hainbat taberna eta ostalaritza lokal aurkituko dituzue, eta horietan pintxoak eta "gildak" ikusiko dituzue. Horiekin batera haranean bertan sortutako txakolinak probatu daitezke, jatorrizko 2 izendapen dituztenak eta zuzenean ezagutu ahal direnak aurretiaz erreserba eginda bodegetara joanez.



renfe
Cercanías

Amurrio



Nerbioiko begiratokia

Bilbao
(Abando)



Urduña Bizkaian kokatuta dago, eta harana partekatzen du "Arrastaria Herriak" Arabako herrixkekin; Delika horien barne dago. Delikara iristeko 3 km-ko paseoa egin behar da. Delikan hasten da "**Nerbioi ibaiaren arroila**" izeneko ibilbidea, haranaren gainean dagoen begiratokiaren azpian. Euri aldia edo elur aldia denean bertatik 222 metroko ur jausia ikusi daiteke. Begiratoki horretara Urduñatik ere iritsi daiteke taxi baten bidez (taxia aurretiaz erreserbatu behar da eta informazio guztia Urduñako turismo bulegoan jaso daiteke).

Haranaren orografia dela-eta leku ezin hobe da hegan egiteko jarduerentzako, besteak beste globoan, parapentean edo ala deltan ibiltzeko.

Nerbioiko ur jausia


Urduña

7. ibilbidea. Kadaguako ibilbidea

Pasio bizia, putxerak eta txapelak

Balmaseda Enkarterrietako erdigunea da, Bizkaiko Jaurerriko alderik mendebaldekoenetakoa, eta beharbada ezezagunenetakoa. Haran ugalkorren, naturaren, historiaren eta monumentu ondarearen ondorioz, inguru horrek Bizkaiko Erdi Aroari buruzko testigantza ematen digu, eta aldi hori bereziki garrantzitsua da lurraldeko gaur egungo nortasuna azaltzeko.

Balmaseda
La Calzada



Ibilbide hau Bilboko Concordia geltokian hasten da, hortik hartzen baita FEVERen Bilbao-Balmaseda C1 linea **La Calzadara noranzkoan**.

Lehenengo gurelekua **Balmaseda** izango da, Bilbotik 50 minutura. Balmaseda inguruko herri handiena da eta monumentu ondare garrantzitsua du herrigune historikoan, zubi zaharra nabarmendu behar delarik, antzinako harresiaren testigua.

Balmaseda ezaguna da Aste Santuaren ospakizunarengatik, eta bertan, herritarrek errealismo handiarekin Pasio Biziko prozesioak gauzatzen dituzte, 50.000 pertsona baino gehiago joaten direlarik horiek ikustera. Beste ohitura garrantzitsua **Putxerak** dira. Ohikoa da San Seberino egunean, Balmasedako zaindariaren egunean, urriaren 23an putxerak egitea, eta hala, egun horretan babarrunak prestatzen dituzte txerri saietekin, urdaiarekin, txorizoarekin eta odolostearekin, eta lehentasunez txakolina edan behar da babarrunak jaterakoan. Bilbao-La Robla trenean lan egiten zutenek trenetako galdaren beroarekin prestatzen zituzten



Putxerak

babarrunak, putxera edo treneko lapiko batean.


Bigarren gurelekua **La Calzada** geltokian egingo dugu, Balmasedatik hiru minutura. Boinas **La Encartada Fabrika-Museoa** bisitatu dezakezue



Enkarterriak

paseo atsegina emanaz, 1,2 kilometro ingurukoa. Bertan antzinako fabrika horretako eraikinak bisitatu ahal izango dituzue. Fabrika horretan egiten zituzten txapelak, eta gaur egun Industria Iraultzaren azken urteetako jatorrizko makinek nola funtzionatzen zuten ikusi ahal izango dute bisitariek.

La Calzadara bueltatu eta Bilbora itzultzeko tren linea berdina hartu behar da, oraingoan Bilborako noranzkoan.



Balmaseda

IBILBIDEAK AUTOBUSEAN


Bizkaia leihatilatik



Erosotasuna eta lasaitasuna nahi badituzu zure helmuga aukeratuz eta ibilaldiak guztiz programatuta izanez, aprobetxatu Bizkaiko autobusen sarea erabiliz egin ahal dituzun ibilbideak.

Guztia oso ondo komunikatuta dago, barnealdera edo kostaldera joateko aukera dagoelarik.


Hartu zure **Bilbao Bizkaia Card** txartela eta ekin bidaiatzeari.



1. ibilbidea: Uribe

Landa inguruaren kostaldeko xarma

Bakio ez da kostaldeko herri bat bakarrik. Bizkaiko hondartza handiena duen herria da, jauntxoan egoitzak eta udako etxeak ditu, eta baita barneko landa tradizionala ere. Bizikidetza perfektu horri esker herri lasaia sortu da, lagunkoia, hainbat paisaia eta edertasun natural paregabea dituena. Gaztelugatxeko Donieneko ermitak kortsarioei eta arrantzaleei buruzko istorioak kontatuko dizkigu.



Bakiora iristeko **Bizkaibuseko A3518 lineako autobusa** hartu behar da Bilboko Moyua plazan. Lanegunetan orduan behin ateratzen da eta jaiegunetan bi orduan behin. Udan, ekaina eta iraila artean, autobusak ordu erdian behin ateratzen dira. Bakion Bizkaiko hondartzarik luzeena dago, kilometro batekoa. Itsasoari irekita dagoenez egokia da ur kirolak egiteko, besteak beste surfa, waveskia edo kayak-surfa, eta bertan estatu mailako eta nazioarteko txapelketa garrantzitsuak antolatzen dituzte.



Bakioko ekonomia beti egon da base-rietan oinarrituta, eta beraz, esnekiak, hegazti produktuak eta haragiak, fruituak eta loreak daude bertan. Horrez gain, zainzuriak eta limoiak ere berreskuratzen dituzte. Baina udal-erri hori erreferentzia da txakolina sortzen, ardo leuna, gaztea eta fruitu kutsua duena, eta XIV. mende bukaeratik

egiten dutena bertan. Txakolinaren museoa (Txakolingunea) bisitatu ondoren herriko izaera ezagutuko duzue. Bertako mikroklimari esker, hau da, itsasotik hurbil dagoelako eta lursailak kalitatezkoak direlako, ardo horren ekoizpena ahalbidetu da. Museo horretan txakolina egiteko modu tradizionala eta ardogintza metodo modernoak ezagutu ahal izango dituzue.

Bakoitik **Gaztelugatxeko Donienera** joan ahal izango zarete, naturaren ikuskizun zoragarria. Asteazken zehar bi orduan behin Bakio eta Bermeo lotzen dituen taxi-bus lineari esker **Gaztelu**



Begi geltokira iritsiko zarete, eta 30-40 minutu oinez egin ondoren Gaztelugatxeko Donienera iritsiko zarete. Larunbatetan eta jaiegunetan taxian 8 pertsonara arte joan ahal izango dira. Ekaina eta iraila artean **Bilbao-Bakio-Gaztelu Begi** ibilbidea **A-3517** autobusean egin daiteke.

Ermitara iristeko paseotxo bat egin behar da, eta oinez egiteko zapa-egokiak eraman behar dira. Bi arkuko zubi bat igaro behar da eta 241 maila igo behar dira. Iristean ez ahaztu ohitura mantentzea: hiru aldiz kanpaia joa behar da izpiritu txarrak uxatzeko eta gurari bat eskatu behar da. Kortsarioek erasoak egin zituzten bertan, besteak beste Francis Drake ospetsuak, eta arrantzaleek esaten dute itsasontziekin bertara hurbiltzea eskuin eta ezkerrean birak eginez zorte onetara dela. Batzuk diote gainera, santuak ugalkortasun arazoak konpontzen ere lagundu dezakeela... Begien aurrean itsaso zabala eta atzean itsaslabar zorrotzak, leku honetako beste garai batzuetara eramango zaituzte.

Bakiotik autobuseko linea berdina hartuko dugu Bilbora itzultzeko.



2. ibilbidea: Urdaibai Arbasoen artea eta baso biziak

Ibilbide honetan antzinako aro bat ezagutuko dugu, orain dela 14.000 urte ingurukoa, lehenengo biztanleek antzinako kobazuloak margotu zituztenekoa. Inguru horretan hainbat ARTE dago, besteak beste Santimamiñeko kobazuloko haitzetakoa eta Omarko basoko margotutako zuhaitzena, XX. mende bukaeran egindako artelana. Leku biek energia dute, biak ere figura geometrikoekin, animaliekin eta giza irudiekin margotuak. Artistak leku zoragarrian batu dira milaka urte igaro ondoren. Gernikara ere joan gaitzke, Pablo Picasso pintorearen maisulanaren jatorrira.

Bilbao (Intermodal)

Gernika-Lumo

Gautegiz-Arteaga

- Santimami
- Oma

Bizkaia
bizkaibus

A3513 - Bizkaibus



Ibilbide hau egiteko Bilboko Intermodal geltokian **A3513 Bizkaibusen** linean hartu beharko duzue. Linearen maiztasuna **bi ordukoa da** eta autobus horretan Gautegiz-Arteagara iritsiko zarete (Zelaieta geltokia, udaletxearen ondoan). Hortik asfaltozko bidea hartu eta oinez 20 minutu egin ondoren Basondora iritsiko zarete. Mehatxatutako baso faunarentzako atarpea da, eta bertan inguruko espezieak eta jada desagertutako batzuk daude. Animaliei argazkiak atera eta gertutik ikusi daitezke, eta beraz, umeentzako jarduera dibertigarria da.

Bost minutuan eta bide berdinetik, Basondotik **Santimamira iritsiko zarete**. Kobazulo hori Bizkaiko arkeologia aztarnategi garrantzitsuenak da. 1917an deskubritu zuten eta aberatsa da geologia dela eta, aztarnategia kalitatezkoa delako eta Madeleine aldiko harkaitzetako margolanengatik. Ikatzarekin edo ebakidura txikiekin margotutako berrogeita hamar irudi daude, eta horietan bisonteak, zaldiak, bobidoak, basurdeak, hartz arreak eta oreinak daude. Irudi geometrikoak eta gizakien irudiak ere badaude.


Pintura horiek eta gainerako kokalekuak orain dela 14.000 urte baino gehiagokoak dira. 2008an kobazuloa Gizateriaren Ondare izendatu zuen UNESCOk. Interpretazio zentroa eta arkeologia aztarnategia bisitatu eta ibilbide birtuala egin daitezke, kobazuloa itxita baitago kontserbazio arrazoiengatik.




Santimamiñetik **Omarko basora** 50 minutu behar dira, gutxi gorabehera. Baso barruan, bisitariek artelana osatzen duten 34 multzo artistikoak ezagutzeko egin dezaket ibilbidea kilometro eta erdiko da guztira. Omarko anezka-bus zerbitzua doan erabili ahal izango da asteburuetan.

Anezka Gernika-Lumoko bus-geltokitik abiatuko da. Aurretiko hitzordua beharrezkoa da.

Gautegiz Arteagara itzuli eta **A3513** autobusarekin Bilbora itzuliko zarete, baina **Gernikan** geldialdia egin daiteke nahi baldin bada. Gernikan Espainiako Gerra Zibilaren pasarte tamalgarria gertatu zen; Alemaniako Condor Legioak eta Italiako Abiazio Legioak herria bonbardatu zuten. Picasso margolaria gertakari horretan inspiratu zen eta "Gernika" maisulana sortu zuen, XX. mendeko gerraren aurkako sinbolo garrantzitsuenetakoa bat. Gainera, Batzar Etxea eta Gernikako arbola ospetsua bertan daude, euskaldunen eskubide eta askatasunen esandartea hain zuzen ere. Interesgarria da Bakearen museoa bisitatzea.



Gernika



Omarko baso margotua

3. ibilbidea: Arteaga/Bird Center/Laida-Laga Natura askea

Gauegiz Arteagan, Busturialdea-Urdaibai eskualdean kokatutako herrian, natura askea da. Inguru horretako aberastasun naturala paregabea da aniztasun ekologikoa, landa paisaiak eta hezeguneak eta estuarioko hondartza handiak direla-eta.

Ezinbestekoa da inguru horretako hondartzak ezagutzea; kokapen bereziaren ondorioz Urdaibaiko Biosfera Erreserbako bista zoragarriak disfrutatu daitezke. Hondartzak paregabeak dira baita ere ur kirolak maite dituztenentzat, besteak beste surfa, bela edo piraguismoa. Natura egoera puruan, horixe da turistentzako erakargarri nagusia.

Bilbao 
(Intermodal)

Bizkaia
bizkaibus

A3513 - Bizkaibus



Udalerri horretara iristeko Bilbaoko Intermodal estazioan **Bizkaibuseko A3513 linea** hartu behar da (Bilbao-Galdakao osp.-Gernika Lumo-Ea-Lekeitio) eta Arteagara iritsiko zarete. Autobusak bi orduan behin ateratzen dira. Zelaietan jaitsiz gero, udaletxearen ondoan, bi bisita oso berezi proposatzen dizkizuegu. Pixka bat oinez eginda **Urdaibai Bird Center** zentrorra iritsiko zarete. Museo bizia da, naturaz gozatzekoa, leku ezin hobea hegaztiak eta hegaztien migrazioak atsegin badituzue. Hezegunea ikusteko begiratokia da, eta bertan ikerketa eta hedapen zientifikoa egiten dute. Horrez gain, zirkuitu ornitologikoa egin daiteke eta bertan dauden hegazti espezieak ikusi daitezke.



Arteagako gaztelua

Arteagako beste bisita bat **gatzelukoa** da, eskualdeko eraikin garrantzitsuenetako bat; oinez joan behar da bertara. Eugenia de Montijok gaztelua bere familiarentzako etxe-dorre bihurtu zuen, bere semeak, Frantziako inperioko printzeak, «jatorrizko bizkaitarra» izendapena jaso ondoren. Horren ondorioz, gaur egun hotela den eraikin neogotikoa eraiki zuten, gaur egun Urdaibaiko Erreserbako leku pribilegiatuan dagoena.

Ibilbidearekin amaitzeko Bizkaiko bi hondartza nabarmenetakoak bisitatu ditugu, Laida eta Laga. **A3526** Bizkaibusa hartuko dugu (jaiegunetan ez dago autobus zerbitzurik) Zelaietan, **A3513** linea utzi dugun lekuan, eta **Laidara** iritsiko gara. Bi gune oso ezberdin ditu, bata estuarioaren barnealdean (umeak bainatzeko ezin hobea) eta bestea itsaso zabalean. Hondartza hau Mundakako itsasadarreko handiena da, eta paregabea da piraguismoa, bela, surfa, wind-surfa eta longboard-a egiteko, olatuak kalitatezkoak baitira, luzeak eta leunak. Dunatik Izaro irla eta itsasadarren bokale ederra ikusi ditzakegu.

Laga ibilaldi horren azken geralekua izango da. Laga euskal kostaldeko hondartza basatienetako bat da, ez dago eraikuntza edo etxerik inguruan, eta oso egokia da surfean aritzeko, Kantauriar itsasora irekita baitago. Paisaia naturala egoera puruan.

Lagatik Bilbora joateko lehendabizi **A3526** autobusa hartu behar da, eta gero Arteagan **A3513** autobusa.



Bird Center



Laga

4. ibilbidea: Elantxobe

Itsaslabarretik eskegitako herria

Elantxobe arrantzale portu txikia da, eta Ogoño muturretik eskegita ikusi daiteke, azkar jaisten delarik itsasorantz, arrantzaleen porturantz. Harritzko pareten inklinazioak kale aldapatsuak eta etxe estuak antolatzen ditu, txoko txiki eta harrigarriak sortuz.

Bilbao (Intermodal)

Bizkaia
bizkaibus

A3513 - Bizkaibus



Bilboko Intermodal geltokitik **eta bi orduan behin, Bizkaibuseko A3513 linearekin** (Bilbao-Galdakao-Gernika-Gautegiz Arteaga-Elantxobe-Ea-Lekeitio) **Elantxobera** iritsiko gara.

Herria arrantzaleen portuaren ondorioz sortu zen eta XVII. mendean garrantzitsua izan zen defentsarako portua izan zelako; gaur egun kirol portua da. XIX. mendean arrantza industria oso garrantzitsua izan zen eskabetxe eta kontserba fabrikak sortu zirelako, baina pixkanaka itsasoko inguru horretan aberastasuna galdu zen eta industriak behera egin zuen.

Herri arrantzale honetako arkitektura ezberdina da, etxeak estilo neoklasikokoak dira Kale Nagusian eta itsasora eta portura begira daude, arrantzaleen zain. Baina itsasoari irekitako inguruaz gozatzeko onena gora igotzea eta begiratokira joatea da, kaletako bertigoia sentituz, eta hodeirik ez dagoen egunetan Gipuzkoako kostaldea ikusiz.




Plataforma birakaria

Leku gutxietan dago gutxieneko zabalera laua, eta beraz, bakarrik herriaren goiko aldean dago plaza txiki bat eta begiratoki bat. Bertan dago Bariko San Nikolas eliza, herriaren zaindariaren omenez eraikia arrantzaleen eta familien dohaintzekin. Elizaren barneko erretaulabarrokoa urrezko egurrez egindakoa da. Beharraren bitartez sortua, autobusek eta ibil-

gailu handiek bira emateko plattformak dago, ibilgailuak herritik atera ahal izateko. Garrantzitsuak dira baita ere udaleko jauregia eta etxe dorre nagusia.

Herri arrantzale berezi hori bisitatu ondoren, non jatetxeetan arrain gozoa jateko aukera dagoen, oinez Ogoño begiratokira igo gaitezke eta bertan bista zoragarriak ikusi. Ibilbide ekologiko-naturala da, bi kilometrokoa eta gora doana, baina egiteko erraza da. Kaitik udalerriko arkitektura ikusi daiteke eta kofradiaren ondotik igaroko gara, herriko bizitzaren erdigunea izan zena arrantzaren garai onetan. Hilerrira igoko gara eta hortik begiratokira. Begiratokitik Urdaibaiko Biosfera Erreserba ikusiko dugu, baita Matxitxako lurmuturra eta Lagako hondartza ere.

Bizkaibuseko **A3513** linearekin Bilbora bueltatuko gara.



Elantxobe



Elantxobe

5. ibilbidea: Lea-Artibai

Kostaldearen eta tradizioaren edertasuna

Lekeitio Lea-Artibai eskualdeko herri arrantzale polita da. Polita da alde batetik kokapen geografiko ederra duelako Lea ibaia itsasorutzen den gunean, eta hala, Isuntza eta Karraspio hondartzen artean San Nikolas irla sortu zen. Helmuga turistiko pribilegiatu da, kostaldea, natura, kultura, itsas tradizioa eta itsasoarekiko errespetua uztartzen dituelako. Herri hau beti egon zen arrantzari lotuta, turismoa iritsi zenera arte.

Bilbao (Intermodal)



Lekeitiora iristeko **Bizkaibuseko A3512 autobusa hartuko du-gu** (Bilbao-Lekeitio autopistatik),

orduro ateratzen dena Bilbao Intermodal geltokitik. **Lekeitio** herri arrantzalea da aspalditik, eta itsasoko jendearentzako garrantzitsua izan zen: balea-arrantzaleentzat, gainerako arrantzaleentzat, nabigatzaileentzat eta abenturazaleentzat. Baina hori guztia XIX. mendean aldatu zen, lehenengo turistak Lekeitioko hondartzetara iritsi zirenean. Eta gizarteko maila altuko turistak ziren, besteak beste Isabel II.a erregina eta Austria-Hungariar inperioko Zita enperatriza. Ordutik hona herria oso lasaia da neguan, eta udan bisitari asko izaten ditu, oso dinamikoa da eta bizitzaz betetzen da.

Lekeitio alde zaharrean hainbat jauregi daude eta horiek osatzen dute ondare zibila, besteak beste Uriarte, Oxagoiti, Uribarri eta Abaroa jauregiek, eta horrez gain, etxe-dorreak eta antzinako arrantzaleen etxeak ere badaude. Erljioari dagokionez Andra Maria Zeruratzearen basilika dago, urreztatutako erretaula gotiko zoragarriarekin, estatuko hirugarren handiena hain zuzen ere.

Bisitatu beharreko beste eraikin bat **Santa Katalina itsasargia da**, oraindik ere martxan dagoena, eta bertan dago baita ere Nabigazio teknologia-aren interpretazio zentroa. Asteburuetan irekitzen dute jendeak ikusteko, eta helburua arrantzale tradizioa mantentzea da. Ilunabarra ikusteko leku paregabea da, alde zaharretik oinez hogeit hamar minutura baitago. Beste paseo interesgarri bat Lumentza mendira igotzea (15 minutu) da. Antzina bertatik ikusten ziren baleak, eta Learen ibilbidea ere interesgarria da.



San Nikolas irlak **Garraitz** izena ere badu, eta udalerriko turismo erakargarrietako bat da. Txoko berezia da, marea behean dagoenean bertara



joateko aukera dagoelako, eta kondairaren arabera, antzina lepradunak hantxe uzten zituzten, beste herritarrek ez kutsatzeko.

Lekeitiok hiru hondartza ditu. Isuntza da hondartza nagusia, portutik eta alde zaharretik hurbil dago, eta perfektua da umeak dituzten familientzat. Karraspio Mendexan dago, eta luzeran 500 metro baino gehiago dituen herriko luzeena da. Hondartza bietatik joan gaitzek San Nikolas irlara marea behean dagoenean, baina hala ere hobeto da Karraspioko hondartzatik joatea. Hondartza txikiena Basatia da, baina marea behean dagoenean bakarrik ikusten da.

Autobus linea berdinean, **A3512** zenbakia duenean, bueltatuko gara Bilbora.



6. ibilbidea: Markina/Xemendarroa Errromesen bidea

Iparaldeko Donejakue Bidea Lea-Artibai eskualdetik pasatzen da. Markina-Xemeinen Erdi Aroko iraganeko oihartzunak daude, eta gaur egun ere Santiagora doazen errromesak eliza isiletan biltzen dira eta Ziortzako monasterioaren armonian murgiltzen dira. Ondare historikoa eta paisaia natural paregabeak...iraganera bidaia da.

Bilbao
(Intermodal)



Markina-Xemeinen hasi eta bukatzen dira kostaldeko Donejakue Bideko bi etapa, eta herri horretara iristeko **Bizkaibuseko A3916 linea** (Bilbao-Ermua-Ondarroa) edo **A3915 linea** hartu behar dira. Azken hori Durangotik ere pasatzen da, **eta ordu erdiro, txandakatuz** Intermodaleko geltokitik ateratzen dira autobusak. Erdi Aroko hiribildu honetan ondare aberastasun handia dago harri gogorrezko eta ondo landutako eraikin handiak direla eta, besteak beste Bidarte, Antxia, Ansotegi, Barroeta eta Ugarte dorreak; Solartekua eta Mugartegi jauregiak (gaur egun udaletxea), Andonaegi eta Patrokua jau-regiak eta Gaytan eta Ayala etxea ere garrantzitsuak dira; beste eraikin interesgarri batzuk herriko arrandegia, antzinako udaletxea eta Goikoportala iturria dira.

Erligio ondareari dagokionez nabarmentzekoa da Arretxinagako San Migel ermita (santuaren irudia bi harri naturalen artean dago), San Jose, Karmengo, Mesedeetako eta San Agustin ermitak, eta Gurutze Santuaren ermita. Xemeingo Andra Mariaren Zeruratzea eta hilerria Euskadiko monumentu nazionalak dira.

Baina Markina-Xemein ezaguna da baita ere Pilotaren Unibertsitatea izateagatik. Markinako frontoian zesta puntako hainbat jokalarik ikasi zuten (euskal pilotaren modalitate ezaguna), baita esku pilotako, palako, erre-monteko eta emakumeen erraketako hainbat pilotarik ere.


Markinatik beste bi leku interesgarri bisitatuko ditugu. Bata **Ziortza-Bolibar** da, herri txiki eta xarmargarria, Simon Bolibarren jaioterria, eta bertako museo bisitatu ahal izango dugu Markina-Xemeinen **Bizkaibuseko A3922 linea hartu** eta Iruzebietan jaitziz gero. Autobus hori astelehenetik ostiralerara lanegunetan egoten da, eta bisita larunbatetan edo jaiegunetan eginez gero oinez joan gaitzke Markinatik Bolibarrera, bi kilometro inguruko bidea baita. Santo Tomasen parrokian Coromotoko Andre Mariaren irudia dago, Venezuelako zaindariarena.

Bolibarretik bide bat hartuz eta hiru kilometro oinez egin ondoren **Ziortzako monasteriora iritsiko gara** (antzinako kolegiata izan zena). Multzo monumental honetan eliza, apaizaren etxeak, errromesen aterpea eta Erdi Aroko galtzada daude, eta bertan bereziki nabarmentzekoa da klaustroa eta bertako organoa.

Beste udalerrri interesgarri bat **Ondarroa** da, eta bertara joateko **Bizkaibuseko A3916 linea** hartu beharko duzue.



Kontraste handiak dituen herria da: tradizioa eta modernitatea, itsasoa eta mendia, ondare historikoa eta azpiegitura modernoak... Erdi Aroko alde zaharra nabarmentzekoa da, eta bertan kale estu eta mailakatuetan elkarren ondoan jarritako etxe tipikoek garrantzia berezia dute. Udaletxe zaharra, Likona dorrea, Santa Klara kofradia, Antiguako ermita eta Andra Mari eliza bisitatu ditzakezue. Azken horretan Kortxeleko mamuak daude, Erdi Aroko gizarte mailak irudikatzen dituzten hamabi irudiak. Ondarroako zubiak ikusi ditzakegu (Itsasaurre, Zubi Zaharra eta Alfonsito XIII.aren pasabidea) eta noski, kostaldeaz gozatu dezakegu.



Ziortzako monasterioa (antzinako kolegiata)

7. ibilbidea: Durangaldea Harriek diotena

Bilbao 
(Intermodal)

Bizkaia
Bizkaibus

A3923 - Bizkaibus



Durango

Elorrio

Nobleen jauregi eta etxeak, harri gogorrekoak eta harlanduzkoak Elorrión ikusi ditzakegu, eta Durangaldeko nobleziaren sekretuak kontatuko dizkigute Urkiolako Parke Naturaleko bista zoragarriak ikusi aurretik. Elorriora iritsi aurretik natura zabalean geldialdia egin dezakegu eta familiarekin batera Arrazolako bide berdean oinez egin dezakegu, Anbotoko harrizko horma izugarrien azpian.

Ibilbide hori egiteko Bilboko Intermodal geltokian **Bizkaibuseko A3923 linea** hartuko dugu. **Ordurero ateratzen da** eta azken galekua Elorrión du. Baina Elorriora iritsi aurretik Atxondón geratu gaitzeko, familiarekin batera paseo bat egiteko leku paregabea. Durango-Arrazola antzinako trenaren ibilbidea, Anbotoko harrizko horma zoragarrien artekoa, gaur egun **Arrazolako bide berdea** da, 10 km-ko ibilbidea, laua eta zailtasunik gabekoa, bi orduan egin daitekeena joan-etorrian.



Arrazolako bide berdea

Gehiago oinez egin nahi baduzue ordubetea eta El Topetik, bidea bukatzen den lekutik, bista ezin hobeak ikusiko dituzue, lekua enblematikoa baita: **Betsaide** mendia- ren tontorra da, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa batzen diren lekua.

Autobus linea berdinean, **A3923** delakoan, **Elorriora** bueltatuko gara. Elorrión hainbat eraikin erlijioso eta zibil daude, eta bereziki nabarmendu behar dira XVII. eta XVIII. mendeetako nobleziaren jauregi eta etxeak, besteak beste Urkizu, Urkizu (Tola), Arabio, Altzerreka Mendiola, Arespakotxaga, Zearsolo (Jara etxea) eta Olazabal (Modet). Oraindik zutik dauden Erdi Aroko harresiko sei ateetatik Kanpokaleko atea eta Errekako atea nabarmendu behar dira, eta arkitektura erlijiosoari dagokionez Sortzez Garbiaren basilika, Santa Ana monasterioa eta San Agustín eliza.

Arriola jauregian jaio zen San Valentín Berrio-Otxoa, udalerriko pertsonaia ezagunena. Asian misioak egin zituen eta hil egin zen fede kristauari uko ez egiteagatik. Bere hondarrak Sortzez Garbiaren basilikan daude. Basilika hori Bizkaiko handiena da bere bolumena eta eraikuntzaren kalitatea, altzariak, Sevillako Giralda irudikatzen duen kanpandorra eta ekialdean inspiratutako aldea direla eta.


Gainera, Iturrizoro izeneko iturria eta frontoia ezagutu egin behar dira eta 9 gurutzadurak ikusi eta fatxadetatik eskegita dauden ezku eraldikoak begiztatu behar dira. Elorrio Bizkaiko gurutzadura gehien dituen herria da (Kurutziagako gurutzea da nabarmenena), baita ezku eraldikoena ere. Elorrioko kaleetan Erronbiloa dago, brontzezko estatua, Lepantoko batailan borrokatu zuten soldaduak irudikatzen dituena. Argiñetako hilerria ikusi behar da, Euskadiko hileta monumentu garrantzitsuenetakoa.



Elorrioko Kanpokaleko atea

Bilbora itzultzeko **A3923** autobusa hartu behar da jaitsi garen lekuan bertan.

8. ibilbidea: Zeanuri/Otxandio/Ubide Urkiola eta Gorbeia artean



Arratiako haranean naturak leku handia du, bere burua adierazten du eta hitzik gabe uzten gaitu. Otxandiok, Zeanurik eta Ubidek goizero paisaia zoragarriaz inguratuta egoteko pribilegioa partekatzen dute: Urkiolako Parke Naturala eta Gorbeia Parke Naturala.

Ibilbide hau Otxandion hasi daiteke, Bizkaiko hego-ekialdean. Otxandio-ra iristeko Bilboko **Abando** geltokian **A3925 linea** (Bilbao-Lemoa-Otxandio-Ubide) hartu behar da, **orduro** ateratzen dena. Otxandioko plaza nagusiak garrantzi arkitektoniko handia du, eta bertan udaletxea, Santa Marina eliza (XVI. Mendekoa, zati batean Ameriketako diruarekin eraikitakoa), Vulcanoren iturria (aroztegien omenez egindakoa), Kultur Etxea, bolatokia, frontoia eta ospitale zaharra ikusi ditzakezue.



Otxandio inguruan espazio natural zoragarriak daude, Urkiolako Parke Naturalaren eta Gorbeia Parke Naturalaren artean dagoelako, eta gure bisitan zehar zelai berdeak, harrizko hormak, basoak eta kobazuloak ikusiko ditugu. Baina Urrunagako ur-

tegia ere bertan dago, aisialdirako, deskantsatzeko, eta kirola (bereziki arrantza) egiteko leku egokia. Urtegiaren inguruan hainbat hegazti eta uretako espezie ikusi daitezke.

Hurrengo geralekua **Zeanuri** izango da, eta bertara iristeko **A3925** autobusa hartuko dugu. Zeanuri Gorbeia mendiaren magalean dago, eta landa auzoak ditu hainbat base-rrirekin, guztiak ere Bizkaiko herri arkitekturaren adierazle direlarik. Zeanuritik hainbat ibilbide ateratzen dira Gorbeia mendi katera, Lekandara, Urrekoatxara edo Aldaminera, besteak beste. Gainera, edertasun bereziko lekuak daude, besteak beste Saldropoko hezegunea (Barazarretik joan behar da) eta interpretazio zentroa eta aisialdirako eremua.

Bizkaibuseko linea horren azken geralekua, **A3925, Ubide** da, Gorbeia Parke Naturalaren sarreran dagoena. Bizkaiko udalerririk altuena da, 581

metroko altitudetan kokatuta dago eta magal leunak eta bertako haritzak eta pagoak eta aisialdirako hainbat gune ditu. Ubideko kaleetan Erdi Aroko galtzada dago udaletxetik San Juan elizaraino, eraikin biak ere oso interesgarriak direlarik. Magdalenaren zubia eta ermita ere nabarmentzekoak dira, baita Aretxaga txaleta ere, eragin ingelesekoa.



Bilbora itzultzeko **A3925** linea hartu eta Abandon jaitsiko gara, hasierako puntuan.



9. ibilbidea: Nerbioi

Belusezko pagadiak eta kobazulo magikoak

Orozko mendien artean dago, erreka tartean, Gorbeia mendizerraren azpian, Itzinako biotopo babestuan. Orozko inguruan kobazuloak, leizeak, babeslekuak, urpeko errekek, belusezko pagadiak eta natura emankorra daude, mitoak eta kondairak sortzeko prestatua, ahozko tradizioari esker biziraun dutenak hain zuzen ere. Magiaz, misterioz, sekretuz eta altxor naturalez betetako paisaia da.

A3613 autobusa, Bilbao-Ugao-Miraballes-Orozko, **Bizkaibusena**, Bilboko Bilen kaletik ateratzen da **orduro**, eta halaxe iritsiko gara **Orozkora**. Orozkon edertasun izugarritzko parajeak daude, paisaia aberatsa da, baita arkeologia ere, eta ondare naturalaren elementu nagusia Gorbeia Parke Naturala da. Gorbeia parke naturala Euskadiko handiena da eta bere erdigune geografikoa Itzinako biotopo babestua da, Bizkaiko udalerrri horretakoa, eta bertara joango gara Atxularren Begitik.

Itzinan natura eta mitologia elkartuta daude. Belus berdez inguratutako pagadiak eta behe lainoak paisaia agertoki magiko bihurtzen dute, misterioz eta sekretuz betea. Higadura naturalari esker leizez, urpeko errekek eta kobazulo labirintoz betetako parajeak sortu dira, eta horrenbestez, hainbat mito eta kondaira sortu ziren leku horretan, gaur egun ere bizirik dirautenak ahozko tradizioari esker. Mari, basajaunak, lamiak eta sorginak dira haraneko bizitza gidatu duten istorio amaigabeen protagonistak.



Gorbeia gurutzea



Orozko

Parkean gizakiak egindako hainbat eraikin daude baita ere, besteak beste Gorbeia tontorrean dagoen burdinazko gurutzea, kirikinoak (gaztaina biltegiak), hozkailuak (harriaren egindako zuloak urte osoan zehar elurra gordetzeko) eta txabolak (artzainek lo egiteko). Gainera, eskualdeko ondare arkeologikoa aberatsenetarikoa hemen dago: Orozkoko kobazuloetan historiaurreko hamaika aztarnategi daude.

Orozkotik hainbat ibilbide daude, iraupen eta zailtasun ezberdinetakoak, Gorbeia Parke Naturalera eta Usabel eta Belaustegira joateko. Orozkon ondare arkeologikoa garrantzitsua dago baita ere. Eraikin erlijiosoen artean nabariak dira Olarteko San Bartolomearen parroikia, Muruetako San Pedrorena eta Urigoitiko San Lorenzoren, baita lurraldean sakabanatutako ermita guztiak ere.



Arkitektura zibilari dagokionez eraikin garrantzitsuenak Aranguren dorrea, Torlanda dorrea, Anunzibai zubia eta Ugarte, Torre eta Aldama jauregiak dira. Ibilbide bat egin daiteke Untzuetako Erdi Aroko gazteluko hondarretan zehar, XV. mendean suntsitu zutena. Kondairaren arabera bertan bizi ziren Jentilak, indar handia zuten izaki mitologikoak.

Museo Etnografikoa Legorburuko etxe jauregian dago, eta bere helburu nagusia Orozkoko haranarekin lotutako alderdien ezagutza sustatzea da: ondare historikoa, bizitza tradizionala eta Gorbeia lur altuetako bizilagunak.

Orozkoko jarduera ekonomikoa beti egon da nekazaritzari, abeltzaintzari eta baso ustiapenari lotuta. Turismo Bulegoan ekoizleak bisitatzeko informazioa jaso dezakezue, eta hala, ogia, egurra edo gazta lantzeko antzinako moduak ezagutuko dituzue. Txorizoa ere inguruko produktu ospetsua da.

Bizkaibuseko **A3613** linearekin Bilbora bueltatuko gara.



Gorbeia pagadia

Bizkaia hainbat zapore eta produktu eskainiko dizkizue, jatean eta partekatzean plazer izugarria sentiaraziz. Hemen duzue lagin txiki bat. Ez buelta egin guztia probatu gabe!

SARDINAK

Abestiak dioen bezala, "¿Quién compra? Sardina freskue..." Santurtzi ezaguna da arrantzatu berri diren sardina freskoak eta kalitatezkoak dituelako. Gelditu portu inguruko jatetxeetan eta gozatu sinpletasun bikainaz.



ARRAIN ERRETZAILEAK

Erreboiloa, bisigua, itsas zapoa, lupina, txitxarroa, legatza... Arrain freskoa, arrantzatu berria, artisautza da Lekeitioko, Bermeoko, Algortako (Getxo), Ondarroako, Mundakako, Pobeñako, Gorlizeko, Bilboko, Zierbenako eta abarreko erretegiaren prestatzen dutenean. Tokiko kalitatezko produktua, tradizioari jarraituz.

BABARRUNAK

Euskal gastronomia benetakoena: babarrunak osagarriekin (haragia, hestekiak...). Txerriaren produktuekin eta hainbat barazkirekin egindako babarrun hauek ezin hobeak dira neguan jateko. Non? Orozkon, Zugaztietan, Morgan, Garain, Diman, Gernikan, Balmasedan, Sodupen eta "putxerak"; ausarta bazara, babarrunen ondoren txuleta.

GARAGARDOTEGIAK

Entsalada on bat, oilaskoa eta garagardoa kanpoko terraza batean... plan perfektua da igande batean familiarekin edo lagunekin egiteko. Garagardotegi ezagunenetakoak Bilbon, Berangon, Plentzian edo Santurtzin daude.

GOI MAILAKO SUKALDARITZA

Euskadi harro dago bertako janariak. Berrikuntzak eta goi mailako sukaldaritzak bat egiten dute Bizkaian 13 jatetxe, horietako sei Bilbon, horrela 15 Michelin izar gehituz, Larrabetzun, Atxondon, Galdakaon, Zornotzan eta Dima.

* 2024ko martxoa



SAGARDOTEGIAK

"Typical basque" esperientzia da: Kupeletik datorren sagardo naturala zuzenean edatea eta sagardotegiko menua jatea: bakailao tortilla, bakailaoa piper berdeekin eta txuleta. Postrea Idiazabalgo gazta, irasagarra eta intxaurrak.



edo PINTXOAK

Euskal tradizioa da. Tabernetako barretan jartzen hasi ziren beharra zegoelako, ardoei laguntzeko. Pixkanaka ezinbesteko bihurtu ziren jendea erakartzeko gaitasuna zutelako, eta hala, ibilbidea askoz ere erakargarriagoa egiten zuten.



Gaur egun pintxoak oso sofistikatuak dira batzuetan, eta hala, egokienak diren ardoekin jaten dira. Pintxoak jateko ohitura ohikoa da Bizkaiko herri guztietan, eta aldi berean gastronomia eta laguntasuna lantzen dira. Pintxo ibilbideak daude, bakoitzak bere estiloa du, eta txikiteoaren bide berdina jarraitzen dute. Miniaturazko sukaldaritza janean esperientzia bizi dezakezu Arabako Errioxako ardo batekin edo Bizkaiko txakolin batekin.

Sardinada

INFORMAZIO
PRAKTIKOA

BILBAO TURISMOA
www.bilbaoturismo.net
BIZKAIA TURISMOA
www.visitbiscay.eus
EUSKADI TURISMOA
www.turismo.euskadi.eus

TURISMO-BULEGOAK

BILBO

- BILBO TURISMOA
• Plaza Biribila 1, Terminus eraikina · 944 795 760
• Mazarredo zumarkalea 66 (Guggenheim Bilbaoren ondoan)
• Aireportua 944 031 444

BIZKAIA

- BAKIO
946 193 395 · www.bakio.eus
BALMADEA - ENKARTUR
946 802 976 · www.visitenkarteri.com
BERMEO
946 179 154 · www.bizbermeo.eus
DURANGO
946 033 938 · www.turismodurango.net
ELORRIO
946 820 164 · www.elorrioturismo.eus
• GERNIKA-LUMO
946 255 892 · www.gernikainfo.eus
• GETXO
944 910 800 · www.gebo.eus/turismo
ITG - Informazio Turistikoko Gunea
Marxotik abendura · 615 75 62 90
• GORLIZ
946 774 348 · www.visitgorliz.eus
KARRANTZA-HARANA
946 806 928 · www.karrantza.org
LEKEITIO
946 844 017 · www.lekeitioturismo.eus
MUNDAKA
946 177 201 · www.mundakaturismo.com
ONDARROA
946 831 951 · www.ondarroa.eus
URDUÑA
945 384 384 · www.ordunaturismo.com
OROZKO
946 122 695 · www.gorbeaeuskadi.com
PLENTZIA
946 774 199 · www.visitplentzia.com
PORTUGALETE
944 729 314 · www.portugalete.org
• SANTURTZI
944 839 494 · www.visitsanturtzi.eus
SESTAO
944 070 985 · www.sestao.eus
• SOPELA
944 065 519 · https://turismo.sopela.eus/
ZIERBENA (La Arena)
662 547 468 · www.zierbena.net
(urtaroaren arabera/aldezka irekitzen da)

GARRAIOA

- AIREPORTUA
Bilbo-Lolu · 913 211 000 (AENA)
www.aena.es/es/bilbao.html
ITSAS BIDAIAK ETA FERRYA
Bilbo-Portsmouth ferrya 902 108 147
www.brittany-ferries.es
TRENAK
RENFE. Abandoko Indalecio Prieto geltokia
Plaza Biribila 2
Bezeroei laguntzeko tel. ADIF 912 432 343
Bezeroei laguntzeko tel. RENFE Bilbo 944 879 222
Bezeroei laguntzeko tel. RENFE 912 320 320
www.renfe.com / www.adif.es
EUSKOTREN
Bezeroei laguntzeko tel. 944 333 333
www.euskotren.eus · 944 019 900
FEVE. La Concordia geltokia
Ballen kalea 2
AUTOBUSAK
Bilbao Intermodal (autobus-geltokia)
Gurtubai 1 · 944 395 077
· www.bilbaointermodal.eus
Bilbobus (udal-autobusak)
946 855 000/ 944 790 981
www.bilbao.net/bilbobus
Bizkaibus (autobusak, probintzia eta aireportua)
946 125 555 · www.bizkaia.eus
BILBOKO METROA
946 855 000 · www.metrobilbao.eus
TRANBIA
944 333 333 · www.euskotren.eus
TAXIAK
Radio Taxi Bilbao
944 448 888 · www.taxibilbao.com
Tele Taxi
944 102 121 · www.teletaxibilbao.com
Radio Taxi Nervión
944 269 026 · www.radiotaxinervion.com
Gebon:
BIZKAITAXI
www.bizkaitaxi.eus / 94 491 53 53
GETXOBIZI
www.nextbike.es / 900 29 35 51
BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA
Bilbaobizi
946 564 905 · www.bilbaobizi.bilbao.eus

OROKORRA

- LARRIALDIAK 112
INFORMAZIO OROKORRA 010
(Bilbo udalerri barruko deietarako)
944 010 010 (Bilbo udalerrikanpoko deietarako)
KIDEGO KONTSULARRAREN BULEGOA
944 706 426
HERRITARREN ARRETA BILBOKO UDALA
944 204 200
ERREPIDEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA
011
GALDUTAKO GAUZAK
944 204 981 / 944 205 000

OSTATUAK

- NEKATUR/LANDA-OSTATUAK
943 327 090 · www.nekatur.net
946 870 402 (lhobe) · www.ekoetxea.eus
HOTEL ENKARTEA
www.destinobilbao.com
XARMA, Euskal Herriko ostatu xarmagarrien elkarte
www.xarmahotels.com

BILBOKO MUSEOAK

- GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA
www.guggenheim-bilbao.eus · 944 359 000
ARTE EDERREN MUSEOA
www.bilbaomuseoa.eus · 944 396 060
ARTE SAKRATUAREN MUSEOA
www.bilbaomuseoa.eus · 944 320 125
ITSASMUSEUM BILBAO
www.itsasmuseum.eus · 946 085 500
ASTE SANTUKO PASIO IRUDIEN MUSEOA
www.museodepasosbilbao.com · 944 150 433
BILBOKO ZEZEN MUSEOA
www.bilbaomuseoa.eus · 944 448 698
MUSEO VASCO / EUSKAL MUSEOA
www.euskalmuseoa.eus · 944 155 423
BERREGINEN MUSEOA
www.bilbokoberreginenmuseoa.eus/es · 946 790 255
ATHLETIC CLUB MUSEOA
www.sanmames.athletic-club.eus/museo · 944 661 100
EUSKARAREN ETXEA
www.euskararenetxea.eus · 944 028 081
ARKEOLOGIA MUSEOA
www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 944 040 990

BIZKAIKO MUSEOAK

- KOSTALDEAN
ARRANTZALEEN MUSEOA (Museo del Pescador)
Bermeo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 881 171
BUTROIKO PLENTZIA MUSEOA
Plentzia · www.museoplentzia.org · 94 677 37 25
RIALIA INDUSTRIA-MUSEOA
Portugalete · www.portugalete.org/ES-ES/RIALIA · 944 729 200
SANTURTZI ITSAS MUSEOA
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494
AGURTZA ONTZI-MUSEOA
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494
BIZKAIA ZUBIA
Areeta (Gebo) /Portugalete
www.puente-colgante.com · 944 801 012
PUNTA BEGOÑA GALERIAK
Gebo · www.puntabegonagetxo.eus
URDAIBAI BIRD CENTER
Gautegiz-Arteaga · www.birdcenter.org · 699 839 202
EKOETXEA URDAIBAI
Busturia · www.ekoetxea.eus · 946 051 275
TXAKOLINGUEA - TXAKOLINAREN MUSEOA
Bakio · www.bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolingunea · 946 028 513
SANTA KATALINA ITSASARGIA
Lekeitio · www.lekeitioturismo.eus/es · 946 844 017

BARRUALDEAN

- SIMON BOLIVAR MUSEOA
Ziortza-Bolibar · www.simonbolivarmuseoa.com · 946 164 114
DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA
Durango · www.durangomuseoa.eus · 946 030 020
ENKARTERRIETAKO MUSEOA
Sopuerta · www.enkartermimuseoa.eus · 946 504 488
EL POBALEKO BURDINOLA
Muskiz · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 629 271 516
EUSKAL HERRIA MUSEOA
Gernika-Lumo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 255 451
GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOKO FUNDATZIOA
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200
GERNIKAKO BATZAR ETXEA
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200
BASONDO
Urdaibaiko basafunaren aterpea (Kortezubi)
www.basondo.com · 946 254 436
MEDIZINAREN ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA,
"JOSE LUIS GOTT"
Leioa · www.ehu.eus · 946 012 000
OROZKOKO MUSEOA
Orozko · www.orozkomuseoa.eus · 946 339 823
EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA
Gallarta · www.meatzaldea.eus · 946 363 682
BALMADEAKO HISTORIAREN MUSEOA
Balmaseda · www.visitenkarteri.com · 946 802 976

- LA ENCARTADA FABRIKA MUSEOA
Balmaseda · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 800 778
VALENTÍN DE BERRIOTXOA MUSEOA
Elorrio · www.visitelorrio.com · 946 820 164
LOIZAGA DORREA, ANTZINAKO AUTOEN ETA AUTO
KLASIKOEN MUSEOA
Galdames · www.torreloizaga.com · 672 248 759
BURDIN HESIAREN OROIMENAREN MUSEOA
Berango · www.cinturondelherro.eus · 946 682 143
ANTZASTI MUSEOA
Dima · Artaun auzoa 35, 48141,
www.antzasti.eus · 628 32 22 75
MUSEO DE ORDUÑA / URDUÑA HIRIKO MUSEOA
Urduña · orduñahiria.org · 635 751436
KARPIN FAUNA, BASAFUNAREN
HARRERA-ZENTROA.
Karrantza
www.bbkarpinfauna.eus
946 107 066
HONTZA MUSEOA FUNDATZIOA.
Mañaria · www.hontzamuseoa.eus · 946 216 555
IZENADUBA BASOA
Euskal mitologia-parkea. Olentzeroren etxea
Mungia · Landetxo Goikoa baserria
www.izenaduba.com · 946 740 061
DOLOMITAS FABRIKA MUSEOA
Karrantza · www.visitenkarteri.com · 946 806 928
KONTZEJU ZAHARRA INTERPRETATZIO-ZENTROA
Markina Xemein · www.learnibaiturismo.com/es/hacer/detalle/
kontzeju-zaharra · 618 595 593
MUÑATOIZKO GAZTELUA
Muskiz · www.visitenkarteri.com · 629 271 516
ANGURRETA HARROBIA ARTE ESPAZIOA
Mañaria · angurreta@gmail.com

NATURAGUNEAK

- URDAIBAIKO BIOSFERAREN ERRESERBA
www.urdaibai.eus · Tel.: 94 403 23 60
946 870 402 (lhobe) · www.ekoetxea.eus
GORBEIAKO NATURA-PARKEA
946 122 695
www.gorbeiaeuskadi.com
URKIOLAKO NATURA-PARKEA
946 814 155 · www.urkiola.net
ARMAÑONGO NATURA-PARKEA
946 560 079 · www.visitenkarteri.com
POZALAGUAKO KOBAZULOA
www.cuevadepozalagua.eus
SANTIMAMIÑEKO KOBAZULOA
santimamiñe.com
OMAKO BASOA
www.bizkaia.eus/es/web/bosque-oma-basoa


Bilbao
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



bilbaoturismo.net
visitbiscay.eus



BILBAO
BIZKAIA
be basque

EUSKADI
BASQUE COUNTRY